

Más sobre beneficios penitenciarios y peajes políticos

JON IURREBASO ATUTXA, ETAKO EUSKAL PRESO POLITIKO OHIA :: 31/10/2017

Se plantea aceptar la vía política del enemigo con el objeto de acompañar y contribuir en el camino hacia la independencia. Pero no se dice lo que ello supone.

[Euskara]

Espetxe-onurei eta bidesari politikoei buruzko gauza gehiago (*)

Azken artikuluan, sei eguneko espetxe-baimena eskuratzearren, ETAkide gisa atxilotutako euskal preso batek esan eta egin zuenaren aipamena (beste gauza batzuen artean) egiten genuen. Genioen, era berean, hura eta oraindik are gauza gehiago direla gaur egun euskal preso politikoei exijitzen zaiena. Gaurkoan, ordea, txanponaren beste aldea erakutsiko dugu, predeterminazioz ezkututzen bada ere, azkenean azaleratu egiten dena.

Komunak garbitzeko destinoa onartzea exijitu egin zion kartzelako zuzendaritzak euskal emakume preso politiko bati. Baina euskal emakume preso politikoak uko egin zionez, hilabete batzuk daramatza isolamendu egoeran. Haren eskualdeko militanteek oso modu argian ulertu dute hor planteatzen den kontraesana.

Alegia, nola da posible kartzelariak halako lana inposatzea, dagokion estatus politikoa aldarrikatzen duen euskal emakume preso politikoaren gogoz kontra izanik? Edozein kasutan, zer dela eta uzten da bazter batean gure presoen estatus politikoaren aldeko aldarrikapena?

Horixe da, hain zuzen, Sortu bidean azaltzen ez dena. Bertan, etsaiaren ildo politikoa onartzea proposatzen da, independentziarako bidearekin bat egin eta laguntza emateko, horrek dakartzan ondorioak aipatu gabe, eta aurrez aipatzen ez bada, ezkututzen dela esan nahi du.

Hots, baten batzuek sinestarazi nahi digute Euskal Herriaren arazoak konpontzeko panazea aurkitu dutela, eta zertan datza halako kontua? bada, esku hartzeko ildo “eraginkorrak” eta aldebakarrekoak garatzean. Era berean, borroka eza eraginkorra dela sartu nahi digute gure odolean. Baina inozoenek ere ondo dakite borrokarik gabe mendetasuna dagoela. Hau da, etsaiaren exijentziak onartzea arnasa hartu ahal izateko, besterik ez. Aldebakartasunak errendizioarekin zerikusi handia du, aldebakarreko errendiziorako hautua egiten baitut, hain zuzen ere.

Aldebakartasuna errendizio hutsa dela jabetu da jende andana, horretara, halakoa ikusitakoan, aldebikotasuna estatuen arteko afera dela solik argudiatzen dute, eta lasai baino lasaiago gelditzen dira. Gezurretan segitzen dute eta edozein zentzugabekeria esateak balio du. Halaber, umekeria da esatea gatazka batean aldebikotasuna estatuen arteko afera dela soilik, arrazoi asko direla medio: politikoak, ekonomikoak, militarrek eta abarrak.

Gure mendetasun maila egiaztatzeko asmotan, lan destino zehatz bat onartzea exijitzen

diguten bezalaxe, bestelako umiliazio ugariz gain, geuk egindakoa delitu gisa onartzera behartuko gaituzte, bai eta, geure jarrera politikoak ere.

Azken kontu hori ez da gauerdiko ahuntzaren eztula, gai garrantzitsuak eta larriak dakartzalako berekin. Izan ere, baldin eta neuk egindakoa delitu gisa onartzen badut, guri ezarritako kondenak onartzea ere esan nahi du eta, horrenbestez, poliziaren eta epaien aurrean egindako deklarazioen aitortpena egiten dugu. Dantza honetan etsaia dugu musika eta letraren egilea, eta gauza guztien aitortpena egitera derrigortzen gaitu, hasieratik amaiera arte.

Kontua ez da horretara mugatzen. Bada, atxilotuaren gogoia makurrarazteko asmotan, presioaren, tratu txarren edo torturaren bidez, bigarren eta hirugarren pertsonen inguruan ateratako deklarazioak (izenak eta abarrak) eta salaketak baliozko bihurtzen dira. Haien bideari argi berdea emanez gero, beste batzuk kondenatzen ari garela onartzen dugu, gure benetako nahia ez bada ere. Torturatzen gaituzte, izenak bortxaz ateratzen dizkigute edo, bestela, asmatu egiten dituzte eta, edonola ere, halakoak onartuz gero, beste batzuk kondenatzen ari gara. Ez dugu halakorik egin nahi, baina horixe da bidea onartzeak dakarkigun ondorioa. Nahikoa izango dute halako “delazioarekin” (nahi gabe egindakoa) edo gauza gehiago exijituko ote dute?

Estatu faxistek muturreko krudelkeria darabilte, eta erabateko mendetasun pean jarri nahi dituzte haien etsaiak. Beraz, borrokatu nahi duten belaunaldi berriek jakin bezate sufrimendu handia jasan beharko dutela. Men egiten duenak bere burua desegiten baitu nolabait, eutsi egiten dionak, aldiz, sufritu egiten baitu.

Hartara, borroka izan da euskal herri langile gisa bizirik irauteko elementu nagusia. Aurrera beti!

(*) Artikulu hau aurreko hiru hauen jarraipena da: **“Izaera politikoa galtzearen gainean. Damuaren gainean. Garraztasunik gabeko termino politikoetan”, “Damua dela eta ez dela” eta “Espetxe-ildoaren exijentziak, onurak eta bidesariak”.**

[Castellano]

Más sobre beneficios penitenciarios y peajes políticos (*)

En nuestro último artículo describimos lo que un preso vasco, encarcelado en calidad de miembro de ETA, dijo e hizo (entre otras cosas) para conseguir 6 días de permiso penitenciario. Y decíamos que eso y más les exigen hoy en día a los presos políticos vascos. Hoy pondremos la otra cara de la moneda que se oculta con predeterminación pero que finalmente sale a la luz.

La dirección de la cárcel le exige a una presa política vasca que acepte el destino de limpiar los váteres. La presa política vasca se niega y ésta se encuentra en aislamiento desde hace meses. Los y las militantes pro amnistía de su comarca entienden lúcidamente la contradicción que se plantea.

Esto es ¿cómo es posible que una presa política vasca, que reivindica el estatus político correspondiente a su condición, sea conminada por parte de los carceleros a realizar un trabajo que voluntariamente rechaza? En todo caso ¿a cuenta de qué se deja de reivindicar el reconocimiento del estatus político para nuestros prisioneros?

Precisamente eso es lo que no explica la vía Sortu. Se plantea aceptar la vía política del enemigo con el objeto de acompañar y contribuir en el camino hacia la independencia. Pero no se dice lo que ello supone. Y si no se dice premeditadamente, eso quiere decir que se oculta.

Es decir, hay quienes pretenden hacernos creer que han descubierto la panacea para solucionar los problemas de Euskal Herria. Y este cuento consiste en desarrollar líneas de intervención “efectivas” y unilaterales. Pretenden meternos en la sangre que lo efectivo es no luchar. Y los más incautos saben que sin lucha no hay otra cosa que la sumisión. Admitir lo que el enemigo nos exige para poder respirar, no más. Y lo unilateral tiene que ver con la rendición. Efectivamente, unilateralmente tomo la iniciativa de rendirme.

Después de ver que hay una masa de gente que se ha dado cuenta de que lo de la unilateralidad no es más que una simple rendición, argumentan que realmente la bilateralidad solo se puede dar entre estados. Y se quedan tan panchos. Siguen mintiendo y vale decir cualquier insensatez. También es cosa de párvulos el hecho de afirmar que no existe bilateralidad en un conflicto si no es entre estados por muchas razones de índole político, económico, militar, etc.

Lo mismo que nos exigen aceptar un destino de trabajo para comprobar nuestra sumisión, nos obligarán, entre otro montón de humillaciones, a aceptar como delitos nuestras propias acciones y posiciones políticas.

Esta última cuestión no es banal. No lo es porque conlleva o supone cuestiones importantes y graves. Si acepto que las acciones que he cometido son delitos, esto supone que aceptamos las condenas que nos han impuesto y por lo tanto reconocemos nuestras declaraciones policiales y judiciales. En este baile la música y la letra la pone el enemigo. Y éste obliga a que reconozcamos todo, desde el principio hasta el final.

Y la cosa no acaba ahí. Porque declaraciones (nombres, etc.) y acusaciones sobre segundos y terceros arrancadas sometiendo la voluntad del detenido bajo la presión, maltrato o tortura, cobran validez. Si aceptamos su vía aceptamos que nosotros mismos estamos condenando a otros sin realmente pretenderlo. Nos torturan, nos arrancan nombres o se los inventan y, en cualquier caso, si lo aceptamos estamos condenando a otros. No lo pretendemos pero eso es lo que supone aceptar esa vía. ¿Les bastará esa “delación” no pretendida o exigirán más?

Los estados fascistas son crueles hasta el extremo. Pretenden llevar a sus enemigos a la total sumisión. Que sepan las nuevas generaciones que si quieren luchar van a sufrir y mucho pues el que se somete se autodestruye de alguna manera. Y el que resiste sufre.

Es así, luchando, como hemos llegado a sobrevivir como pueblo trabajador vasco. Aurrera beti.

(*) Este artículo es continuación de estos tres anteriores: *“Sobre la pérdida del carácter político. Sobre el arrepentimiento. En términos políticos y sin acritud”*. *“Sobre el arrepentimiento”*. *“Exigencias, beneficios y peajes de la vía penitenciaria”*.

<https://eh.lahaine.org/mas-sobre-beneficios-penitenciaros-y>